

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO  
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL  
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*244/2022 Foru Agindua, maiatzaren 3koa, produktu energetiko jakin batzuen azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobariaren aurrerakina eskatzeko prozedura arautzen duena.*

Foru administrazioek eskumena dute Euskal Autonomia Erkidegoan hobaria jaso duten produktuen hornidurei dagozkien hobarien eta konturako aurrerakinen itzulketak izapidetzeko, hala jasotzen baitu martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuak, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan nazionalaren esparruan premiazko neurriak hartzen dituenak, 17. artikuluan. Ildo berean, lege testu berak 20. artikuluan dionez, foru lurraldeen esparruan euskal erakundeek dagokie bai hobariak kudeatzea eta itzultzea bai kolaboratzaileei konturako hobariak ematea eta hari dagozkion funtsak hornitzea.

Hobaria gainerako herritarrei zabaltzearen helburua egoera honek etxeetako ekonomietan zuzenean eta zeharka eragiten duen inpaktua murriztea da, kontuan hartu behar baita ekonomia horiek dagoeneko oso kaltetuta egon direla Ukrainari eraso aurretik energiaren prezioek izan duten hazkundeagatik eta COVID-19aren krisiak oraindik dituen ondorioengatik.

Hobariaren bideragarritasuna bermatzeko eta hura ahalik eta azkarren ezarriko dela ziurtatzeko, kudeaketan kolaboratu behar dute, nahitaez, bai erregai eta karburanteen txikizkako hornidura instalazioak ustiatzeko eskubideen titular direnek eta bai hobariaren xede diren produktuen azken kontsumitzaileei zuzeneko salmentak egiten dizkieten enpresek. Horrela, kontsumitzaileek, hobariaren onuradun diren aldetik, zuzenean jakin eta egiaztatu ahal izango dute zer efektu duen hobariak produktuen erosketan, eta, nolatan ere, kolaborazio ereduaren iraunkortasuna bermatuko da konturako aurrerakinen eta itzulketen sistema eraginkor baten bidez.

Testuinguru horretan, eta konturako aurrerakin hori eskatzeko dagoen premia kontuan hartuta, 2022ko apirilaren 4an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN apirilaren 1eko 216/2022 Foru Agindua eman zen argitara, produktu energetiko jakin batzuen azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobariaren aurrerakina eskatzeko prozedura arautzen duena. Agindu horren arabera, Gipuzkoako lurralde historikoan produktu energetiko horiek hornitzen dituzten hobari kudeaketarako kolaboratzaileek beraie dagokien konturako aurrerakina eskatu ahal izango dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez.

Horrez gain, hobaria kudeatzeko kolaboratzaileek egindako hobariak itzultzeko eskatu ahal izango dute hilero, 2022ko maiatz, ekain eta uztailaren lehen 15 egun naturalen barruan, betiere erreferentzia aldiaren azken kontsumitzaileei emandako litro edo kilogramoen bolumenari, dagokionaren arabera, deskontua aplikatuz ateratzen den zenbatekoan.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Orden Foral 244/2022, de 3 de mayo, por la que se regula el procedimiento para solicitar la bonificación extraordinaria y temporal del precio final de determinados productos energéticos.*

El artículo 17 del Real Decreto-ley 6/2022, de 29 de marzo, por el que se adoptan medidas urgentes en el marco del Plan Nacional de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania, determina a las administraciones forales como competentes para la tramitación de las devoluciones de las bonificaciones y anticipos a cuenta correspondientes a suministros de productos objeto de bonificación que hayan tenido lugar en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el artículo 20 del mismo texto legal señala que en el ámbito de los territorios forales, la gestión y devolución de las bonificaciones, así como la concesión de anticipos a cuenta a los colaboradores, y su correspondiente provisión de fondos corresponde a las Instituciones Vascas.

La extensión de la bonificación al resto de la ciudadanía persigue reducir el impacto que el contexto provoca, directa e indirectamente, en las economías domésticas, ya muy afectadas por el crecimiento de precios de la energía anterior a la agresión a Ucrania y por los efectos que todavía tiene la crisis de la COVID-19.

Para garantizar la viabilidad de la bonificación y asegurar la máxima rapidez en su implementación, es imprescindible la colaboración en la gestión de los y las titulares de los derechos de explotación de las instalaciones de suministro de combustibles y carburantes al por menor, así como de las empresas que realicen ventas directas a los consumidores y a las consumidoras finales de los productos objeto de la bonificación. De esta manera, los consumidores y las consumidoras, beneficiarias de la bonificación, conocerán y podrán comprobar directamente su efecto en la adquisición de los productos, garantizándose en todo caso la sostenibilidad del modelo de colaboración por medio de un eficaz sistema de anticipo a cuenta y devoluciones.

En este contexto, y dada la premura existente para solicitar el mencionado anticipo a cuenta, el pasado 4 de abril de 2022 se publicó en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa la Orden Foral 216/2022, de 1 de abril, por la que se regula el procedimiento para solicitar el anticipo de la bonificación extraordinaria y temporal del precio final de determinados productos energéticos, estableciendo que los colaboradores en la gestión de la bonificación que realicen en el Territorio Histórico de Gipuzkoa el suministro de los productos energéticos afectados, podrán solicitar el anticipo a cuenta que les corresponda a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Adicionalmente, los colaboradores en la gestión de la bonificación podrán solicitar la devolución de las bonificaciones efectuadas mensualmente, en los primeros 15 días naturales de los meses de mayo, junio y julio de 2022, ante la Administración competente, por el importe que resulte de aplicar el descuento al volumen de litros o kilogramos, según corresponda, que haya suministrado a los consumidores finales en el periodo de referencia.

Horiek horrela, foru agindu honen bidez arautzen da produktu energetiko jakin batzuen azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobaria eskatzeko prozedura, betiere 6/2022 Errege Lege Dekretuan jasotakoaren arabera hobari hori kudeatzea eta itzultzea Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionean.

Aipatu behar da hobariaren itzulketak eta haien konturako aurrerakinak ez direla enbargatuko edota konpentsatuko zerga zorrak azkentzeko bitarteko gisa.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

**1. artikulua.** *Xedea eta aplikazio eremua.*

Foru agindu honen bidez, arautu nahi da hobari horren kudeaketan kolaboratzen dutenek martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuak, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan nazionalaren esparruan premiazko neurriak hartzeari buruzkoak, I. tituluko VI. kapituluan araututako hobariaren itzulketa eskatzeko prozedura, betiere hobaria kudeatzea eta itzultzea Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionean.

**2. artikulua.** *Hobaria kudeatzen kolaboratzea.*

Hobari horren kudeaketan kolaboratzaile izango dira txikizkako erregai eta karburanteen hornidura instalazioen ustiapen eskubideen titulartasuna dutenak, bai eta hobariaren xede diren produktuen azken kontsumitzaileei zuzenean saltzen dizkieten enpresak ere, betiere produktu horien hornidura Gipuzkoako lurralde historikoan egiten denean.

Hobaria jasotzen duen hornidura bakoitzean, hobariaren zenbatekoaren baliokidea den deskontua egingo da publikoarentzako salmenta prezioaren gainean, zergak barne.

Hobariaren kudeaketarako kolaboratzaileek egindako hobia itzultzeko eskatu ahal izango dute, ondorengo artikuluan jarritako baldintzetan.

**3. artikulua.** *Hobariak itzultzea.*

1. Martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuaren I. tituluko VI. kapituluan araututako hobaria itzultzeko eskaerak Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztu beharko dira, Gipuzkoako lurralde historikoan hobaria jaso duten produktuen hornidurei dagokienez.

2. Kolaboratzaileak, 2022ko maiatz, ekain eta uztailaren lehendabiziko 15 egun naturalen barruan, aurreko hilean egindako hobariak itzultzeko eskaera bat aurkeztuko du hiler, betiere erreferentzia aldiaren azken kontsumitzaileei emandako litro edo kilogramo bolumenari, dagokionaren arabera, deskontua aplikatuz ateratzen den zenbatekoan.

3. Hobariaren kudeaketan kolaboratzaile direnek «Zergabidea» plataformatik aurkeztu beharko dute aurreko apartatuetan aipatzen den eskaera, ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoa erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, ezarritakoarekin bat.

Era berean, eskaera hori aipatutako kolaboratzaileen borondatezko ordezkari direnek ere aurkeztu ahal izango dute, baldin eta Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien erroldan izena emanda badaude, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga kudeaketari eta zerga arloko jarduketara eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 61. artikuluan ezarritzen duen bezala.

En base a lo expuesto, mediante la presente orden foral se regula el procedimiento para solicitar la bonificación extraordinaria y temporal del precio final de determinados productos energéticos, cuando, de conformidad con lo previsto en el citado Real Decreto-ley 6/2022, su gestión y devolución corresponda a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Cabe señalar que, tanto las devoluciones de las bonificaciones como el anticipo a cuenta de las mismas, no serán objeto de embargo y/o compensación como medio de extinción de las deudas tributarias.

En su virtud,

DISPONGO

**Artículo 1.** *Objeto y ámbito de aplicación.*

El objeto de la presente orden foral es regular el procedimiento para solicitar la devolución de la bonificación regulada en el capítulo VI del título I del Real Decreto-ley 6/2022, de 29 de marzo, por el que se adoptan medidas urgentes en el marco del Plan Nacional de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania, por parte de los colaboradores en la gestión de dicha bonificación, cuando su gestión y devolución corresponda a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**Artículo 2.** *Colaboración en la gestión de la bonificación.*

Serán colaboradores en la gestión de esta bonificación quienes ostenten la titularidad de los derechos de explotación de las instalaciones de suministro de combustibles y carburantes al por menor, así como las empresas que realicen ventas directas a los consumidores y a las consumidoras finales de los productos objeto de la bonificación, cuando el suministro de dichos productos tenga lugar en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La colaboración consistirá en efectuar, en cada suministro objeto de bonificación que se realice, un descuento sobre el precio de venta al público, impuestos incluidos, equivalente al importe de la bonificación.

Los colaboradores en la gestión de la bonificación podrán solicitar la devolución de las bonificaciones efectuadas, en los términos previstos en el artículo siguiente.

**Artículo 3.** *Devolución de las bonificaciones.*

1. Las solicitudes de devolución de la bonificación regulada en el capítulo VI del título I del Real Decreto-ley 6/2022, de 29 de marzo, deberá presentarse ante la Diputación Foral de Gipuzkoa respecto de los suministros de los productos objeto de la bonificación que hayan tenido lugar en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. El colaborador presentará mensualmente, en los primeros 15 días naturales de los meses de mayo, junio y julio de 2022, una solicitud de devolución de las bonificaciones efectuadas en el mes anterior, por el importe que resulte de aplicar el descuento al volumen de litros o kilogramos, según corresponda, que haya suministrado a los consumidores y a las consumidoras finales en el periodo de referencia.

3. La solicitud a que se refieren los apartados anteriores se presentará por los colaboradores en la gestión de la bonificación desde la plataforma «Zergabidea», con arreglo a lo previsto en la Orden Foral 302/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos.

Así mismo, dicha solicitud podrá presentarse por los representantes voluntarios de los mencionados colaboradores, inscritos en el censo de representación en materia tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas al que hace referencia el artículo 61 del Reglamento de gestión tributaria y de desarrollo de las normas comunes sobre actuaciones y procedimientos tributarios del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral 5/2020, de 21 de abril.

4. Datozen apartatueta xedatutakoa alde batera utzi gabe, Ogasun eta Finantza Departamentuak itzulketa egingo du, behin erreferentziatzeko aldiaren erregaia hornidurari buruzko informazioaren oinarria egiaztatuz gero.

Erabakitako itzulketa banku transferentzia bidez ordainduko da, eta transferentzia jasotzean joko da itzultzeko erabakia jakinaraziz.

Itzultzeko eskaera aurkezteko epea amaitzen denetik hila-bete igaro eta oraindik hobaria itzuli ez bada, eskaera ezetsiztatu ahal izango da.

Ustezko ezespren horren aurka berraztertze errekurtsoa eta erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu daitezke, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, jasotakoaren arabera.

5. Kolaboratzaileak konturako aurrerakina eskatu badu apirilaren 1eko 216/2022 Foru Aginduak, produktu energetiko jakin batzuen azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobariaren aurrerakina eskatzeko prozedura arautzen duenak, jasotakoaren arabera, hobari horrek estalitako azken hilabeteari dagokion eskaera aurkezten denean, Ogasun eta Finantza Departamentuak aurrerakinaren zenbatekoa gutxituko du dagokion hileko itzulketatik.

Itzulketaren zenbatekoa aurrerakinaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, kolaboratzaileak diferentzia ordaindu beharko du martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 61.2 artikuluan jarritako epean, zirkunstantzia hori jakinarazten zaionetik aurrera.

6. Handizkako operadoreek zein hobariaren kudeaketarako kolaboratzaileek Merkatuaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren informazio eskakizunei erantzun beharko diete, betiere martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuak, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan nazionalaren esparruan premiazko neurriak hartzen dituenak, 17. artikuluan 5. apartatuaren lehendabiziko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako.

Informazio hori oinarri hartuta, Ogasun eta Finantza Departamentuak egindako itzulketak doitu, hala badagokio. Azken doikuntza horretatik ateratzen bada kolaboratzaileak ordaindu beharreko zenbateko bat, hark martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 61.2 b) artikuluan jasotako epean egin beharko du ordainketa, egoera horren berri ematen zaionetik aurrera.

*Azken xedapena. Indarrean jartzea.*

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2022ko martxoaren 31tik aurrera izango ditu ondorioak.

Donostia, 2022ko maiatzaren 3a.—Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (2778)

4. Sin perjuicio de lo dispuesto en los apartados siguientes, el Departamento de Hacienda y Finanzas procederá a la devolución, previa comprobación de la consistencia de la información de suministro de combustible en el periodo de referencia.

La devolución acordada se abonará mediante transferencia bancaria, entendiéndose notificado el acuerdo de devolución por la recepción de la transferencia.

Transcurrido el plazo de un mes, contado desde el fin del plazo para la presentación de la solicitud de devolución, sin haberse efectuado la devolución, la solicitud podrá entenderse desestimada.

Contra esta desestimación presunta se podrá interponer recurso de reposición y reclamación económico-administrativa, en los términos previstos en la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

5. En caso de que el colaborador hubiera solicitado el anticipo a cuenta de acuerdo con lo dispuesto en la Orden Foral 216/2022, de 1 de abril, por la que se regula el procedimiento para solicitar el anticipo de la bonificación extraordinaria y temporal del precio final de determinados productos energéticos, cuando se presente la solicitud correspondiente al último mes cubierto por esta bonificación, el departamento de Hacienda y Finanzas procederá a minorar, de la devolución mensual correspondiente, el importe del anticipo.

Si el importe de la devolución fuera inferior al importe del anticipo, el colaborador deberá ingresar, la diferencia en el plazo previsto en el artículo 61.2 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, computado desde que se le notifique esta circunstancia.

6. A efectos de lo dispuesto en el primer párrafo del apartado 5 del artículo 17 del Real Decreto-ley 6/2022, de 29 de marzo, por el que se adoptan medidas urgentes en el marco del Plan Nacional de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania, tanto los operadores al por mayor como los colaboradores en la gestión de la bonificación deberán atender los requerimientos de información de la Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia.

Sobre la base de esta información, el Departamento de Hacienda y procederá a realizar un ajuste, en su caso, de las devoluciones efectuadas. Si de este último ajuste resultase una cantidad a ingresar por parte del colaborador, deberá efectuar su ingreso en el plazo previsto en el artículo 61.2 b) de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, computado desde que se le notifique esta circunstancia.

*Disposición final. Entrada en vigor.*

La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y surtirá efectos desde el 31 de marzo de 2022.

San Sebastián, a 3 de mayo de 2022.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas. (2778)